



3.ZIRKULARRA

ORDUTEGIEN TAULA ETA EGUN ALDAKETAK

2020-21 Denboraldia

PARTIDEN ORDUTEGIAK

Federazio jarduera koordinatzeko eta hobetzeko, gutxienez 10 egun lehenago partiden ordutegiak erraztea iradokitzen zaie klubei.

Ordutegi horiek, Federazioaren web orriko ordutegien aplikazioan sartu beharko dira **NAHITAEZ, ASTELEHENERO GOIZEKO 8:30AK BAINO LEHEN.**

Aipaturiko betebeharraren hirugarren ez betetzea zigortuko da indarreko diziplinazko araudietan ezarritakoaren arabera.

Infantil eta kadeteen mailetako taldeek posible dute beraien partidak larunbatera, goizez edo arratsaldez aurreratzea aurkakoaren baimenik gabe. Beste maila guztiek, **jublentek eta afizionatuek aurkakoaren baimena beharko dute larunbatean 15:30ak baino lehenago jokatu nahi badute.**

Batzar Nagusian hartutako 2008ko ekainaren 28aren akordioa dela eta, partida jokatu behar duten klubek herrien arteko distantzia kilometrikoa 50 Km baino gehiago bada, partidaren hasierarako ordu-tarte bat ezarri da: goizeko 11,00etatik arratsaldeko 17:30etara. **Hori bai, beti goiko paragrafoan jartzen duena errespetatu behar da.**

Astelehenetako 13,00 orduetatik aurrera agertu den Klubek proposatutako ordutegiaren edozein ordu-aldaketa, **AURKAKO TALDEAREN ADOSTASUNA eta EPAILEEN BILTZAR TEKNIKOAREN BAIMENA** behar izango ditu nahitaez. Zentzu honetan gogorarazten da, partiduen egunen eta ordutegien aldaketak egiteko etengabeko eskariak ikusita, gehienak justifikaziorik gabekoak, **GIPUZKOAKO EPAILEEN BILTZAR TEKNIKOAK**, Gipuzkoako Futbol Federazioaren babesarekin, **EZ DU EMANGO BAIMENA HASIERA BATEAN BIDALITAKO ORDU ETA EGUN PROPOSAMENEN ALDAKETAK, SALBUESPENEZKO EZINBESTEKOAK edo EZUSTEKOAK ez badira behintzat.** Hau dela eta ordutegi eta egunak ezartzeko izapideak ardura handiz egitea eskatzen dizuegu.

PARTIDEN EGUN ALDAKETAK


Euskadiko Futbol Federakundeko Araudi Orokorrean azaltzen den **Lehiaketen III.Liburuko eta 4.ataleko 95 artikulua** literalki jaso dugu, bere garrantzia eta eragina kontuan izanda:

"Dagokion Federakundeak, egoera bereziak ematen direla eta, eta jolastu behar duten bi klub edo K.E. etako batek eskatuta, bestearen baimenarekin, partidu konkretu bat aurreratu ala atzeratu dadila baimendu dezake, beti ere egutegi ofizialean ezarritako beste partiduen ordena aldatzen ez baldin bada, noski."

Esandakoa bete dezazuen eskatzen dizuegu; ordutegia aurrez jakiteak federazioko estamentu guzien plangintza hobetzea ekarriko luke.

Donostia, 2020ko urria

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General